

# ZOZKETAREN OINARRIAK

## TURKIARAKO BIDAIA BATEN ZOZKETA

### LABORAL KUTXA LK PAY APPAREN 2019KO KANPAINA

---

#### 1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Créditoak - aurrerantzean LABORAL Kutxa -, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) - Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500 - duenak, 100 Xiaomi Mi Power Bank 2S bateria zozkatuko ditu.

#### 2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

#### 3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

LABORAL Kutxaren bezero diren pertsona fisiko guztiek hartu ahal izango dute parte zozketan, baldin eta 2019ko abenduaren 12tik 2020ko urtarrilaren 31ra bitartean LABORAL Kutxaren LK Pay appa erabiliz mugikor bidezko ordainketa bat egiten badute, LK Pay appeko Bizum zerbitzuaren bidez dirua mugikorretik mugikorrera bidali edo eskatzen badute edo LABORAL Kutxaren txartelarekin ordainketa bat egiten badute, Apple Pay erabiliz. Parte-hartzaileek partaidetza bat lortuko dute Bizum bakoitzeko (5 gehienez), beste bat mugikor bidezko ordainketa bakoitzeko (5 gehienez) eta beste bat Apple Pay bakoitzeko (5 gehienez). Bezero bakoitzak gehienez 10 partaidetza lortu ahal izango ditu zozketarako. Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

#### 4.- Zozketa

Zozketa 2019ko otsailaren 15ean egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez, kanpaina-aldiaren barruan —2019ko abenduaren 12tik 2020ko urtarrilaren 31ra— zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean. Gainera, zozketan ordezkotako 3 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere. 10 egun baliaduneko epean saridunetakoren batekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkotarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

#### 5.- Sariaren deskribapena eta entregatzeko modua

Sariak honako hauek hartzen ditu barne: bi lagunentzako zirkuitu bat Turkian zehar, 8 egun eta 7 gauekoa, 2020an egin beharrekoa; logela bikoitza hoteletan; hegaldiak Bilbotik, Bartzelonatik edo Madriletik helmugara; ostatua eta gosaria Istanbullen eta mantenu erdia zirkuituan zehar; lekualdaketak helmugan; ibilbideko bisita nagusiak, eta Turkiako bisa. Kapadozian globo-txango bat ere hartzen du barne. Gogorarazten dizugu eskatutako helmugara bidaiatzeko beharrezko dokumentazioa eguneratuta eduki behar duzula. Sariak gehieneko zenbatekoa du esleitura; zenbateko horretatik gorako aldaketa guztiak saridunaren kontura izango dira.

#### 6.- Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago, eta zergak ordaindu beharko ditu. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagokion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

#### 7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Bestela, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkotari emango zaio.

#### 8.- Oinarriak onartzea.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) orrialdean kontsulta daitezke.